



Hezkuntza Sailak lanaldi partzialeko kontratuak eta errelebo-kontratuak formalizatu ahal izango ditu – erretiro partziala duten langileak ordeztzeko –, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Negoziazio Mahai Orokorrak aurreko Erretiro Partzialerako Plana aplikatzen jarraitzea erabakitzen duen Akordioan eta txanda-kontratuari lotutako erretiro partziala hartzeko Gizarte Segurantzaren araudian ezarritako baldintza berrietan ezarritakoaren arabera. Erretiro partziala hartzeko, honako hauek bete behar dira:

### **BALDINTZAK**

Enpresa eta erretiro partziala hartzen duten langileak ados jarriko dira erretiro partziala eta txandakako kontratua gauzatuko diren baldintzetan. Dena den, erretiro partziala eskatzen duen langileak bere eskaerari uko egin ahal izango du, beti ere errelebo-kontratua errelebistari esleitu baino lehen.

#### **Gutxienezko adina eta kotizazioa:**

<b>Gertaera eragilearen urtea</b>	<b>Exijitutako adina, gertaera eragilearen unean kotizatutako aldien arabera</b>		<b>Exijitutako adina, gertaera eragilearen unean kotizatutako 33 urte izanez gero</b>
2024	62 urte eta 6 hilabete	36 urte edo gehiago	64 urte

**Antzintasuna enpresan:** 6 urtekoa jardun osoan, inongo etekinik gabe.

**Lanaldi-murrizketa:** Erretiro hori aukeratzen duen pertsonalak eskaeraren unean indarrean dagoen lanaldi osoaren % 100etik % 50era gutxituko du lanaldia.

Interesdunak, erretiro partzialaren eskubidea duen zehazteko, honako hauek aurkeztu beharko ditu: kotizazio-oinarrien txostena, lan-bizitza eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren erretiro-simulazioaren txostena, behin betiko erretiroaren data egiaztatzen duena.

### **IRAUPENA**

Txandakako kontratuak erretiroa partzialak iraun bitartean iraungo du eta, betiere, iraungiko da erretiratu partzialak behin betiko erretiroa hartzen duen unean, edo bestela edozein egoera legalaren ondorioz kontratua iraungi dela ulertu beharra egon arte.